

Arabako monjeak

Alava con sus montañas, valles y llanadas ha conocido una vida religiosa de carácter propio. El historiador de Alava, J. J. Landazuri, procuró darnos, a fines del siglo XVIII, una visión de conjunto del monacado benedictino y de las Ordenes Mendicantes que se establecieron en esta Provincia.

Hasteko, ikusi genuen zenobioek zer-nolako lekua izan zuten Arabako lurraldean, oso goiz gainera, V-VII. mendeetan (ikus. *Arantzazu*, 2007ko martxo). Une hartan, Araba beste euskal herrialdeen artean lehenengo izan zela esan daiteke. Zenobiten horrek, ordea, ez zuen izan Araban bertakotasun bereko segida monastikorik.

1025eko agiri baten inguruan

Arabari buruz diharduten agiri historikoen artean bada bat arabar herri-izenak banan-banan aipatzen dituena: 1025ekoa da, eta Monasterio bateko kobrantza-kontuak herriekin batera izendatuki ematen ditu. Hortik dakigu Arabako herri batzuek zenbateko zerga ordaintzen zioten Errioxako Donemiliagako Monasterioari.

Izan ere, aurrekoan Nafarroaz esan nuena errepikatzen da ostera hemen: Monasterioa, etxaldea ez ezik, gertuko eta urruneko herrietara iristen zen jabetasun-eremu zabala izan zitekeen. Horregatik ere, Arabako monje-bizitza erbeste-ko zenbait Etxeren menpe egon zen.


Bestalde, Errioxako Donemiliaga Kukulako Monasterioak Araban zuen presentzia horiezen izan erlijioso eta ekonomikoa bakarrik; alde-rantziz, herrialdeko bizitza soziala gidatzen lagundu zuen, ez Ebroz harago bakarrik, Araban ber-

tako herrietan elizak, elizatxoak eta monasterioxkak zituela baizik.

Neurri on batean, badirudi artean parrokien antolaeraketa zerbitzuek ez zituztela asetzen Arabako lurralde osoan garaiko premia erlijiosoak, eta tokian tokiko premiek behartuta Monasterioetako laguntza behar izan zela. Hortik eresortu ziren, bada, kanpoko Monasterioekiko lotura eta menpekotasunak (XI-XII. mendeak).

Errioxatik Donemiliagak eta Naiarako beneditarrek bezalatsu, Nafarroatik Leire eta Iratxek, edo Aragoitik San Juan de la Peña-k ere beren lur, ermita, eliza eta monasterioxkak izan zituzten Araban.

Monasterio apalagoek Monasterio handietara biltzeko joera ezagutu zuten Erreinu kristaue-tan XI. mendean, eta berezikiago Nafarroako Erreinu eta honek bereak zituen Arabako Iurretan. Hainbat arrazoi egon zen horretarako, baina horietako bat Leireko Antso monjea Naiarako Gotzain izendatu zutenekoa da (1032-1046), jatorrizko bere Monasterioari lagundu baitzion Araban Gotzain hark, eta On Martzelo kondeak eta beronen ondokoek eskaini zizkieten berehala Arabako beren emaitzak Leire-ri (1056...), betiere Antso IV.a nafarraren politika orokorraren testuinguruan (1045-1076).



Lurraldea "egiten"

Hortaz, Monasterioek Arabako Lurraldea antolatzen lagundu zuten.

Erdi Aro zaharraren bihotzean Monasterioek betekizun anitza dute: monjeen bizilekuak ziren; baina, beste alde batetik monasterioek, ugaritu ahala, lurraldea biztanlez janzten lagundu zuten.

Herritarrentzat gune erakargarriak gertatu ohi ziren monje-etxe haiek, babesleku zirelako; haien ondoan, laborantza sustatu eta landa-ekonomia autarkikoa eraiki zen; era berean, errazagoa zen halakoan arrimoan bestelako lanak aurkitu eta antolatzea, lanbide berriak sortzea. Balio handiko zeregin sozio-ekonomikoa izan zen hau, artean parrokiaren sarea jaiotzeko zegoen garaietan.

Hasieran, Araban bertako monasterioen bat edo beste lehenagotik ere ari zen horretan: esate baterako, Akosta/Okoizta (871, Zigoitia) edo Salcedo (873, Lantaron). Honelakoek hainbat eliza eta ondasun bildu zuten, batzuetan guztiz beregainak izanik, eta bestelakorik behar izan zenean, kanpoko Monasterioen babesera bilduta ere bai, Salcedo berari Donemiliagarekin gertatu zitzaion bezala (947).

Dena den, monasterio hauen ekonomia ez zen izan nekazaritzarena bakarrik, eta Gesaltza Añana-ko gatzagak ere ustiatu zituen Okoizta-ko Monasterioak, Donemiliagak hainbat lekutako burdinolekako produkzioa biltzen zuen bitartean.

Monasterioen sare arabarra

Nafarroan edo Errioxan eraikitako Monasterio

handien tamainakorik ez zuen ezagutu Arabak, txikiak izan ziren monje-etxe arabarrak eta ia beti kanpoko Monasterioen menpe egondakoak. Araban ez zen egon propioki Abadetxe edo *Abadía* bat bera ere. Ostera, esan bezala, elizatxo, ermita eta basetxe monasteriotarrek Arabako lurralde osoa besarkatu zuten.

Oraindik bere osoan egiteko dagoen mapa arabarrean Erdi Aroko monasterio ketako 40ren bat izen behintzat ezagunak ditugu. Nafarroan askoz gehiago zenbatu izan dira (117), baina dezente gutxiago Gipuzkoan (7) eta Bizkaian (14). Onenean ere, monjeren bat edo beste (gehiago gabe) zutenak dira hauek guztiak.

Badirudi XI. mendea izan zela Araban monasterioak gehien sortu zituena, baina gero sei mendetan zehar joan ziren monje-erakunde hauek jaiotzen, 871tik (Okoizta) 1417ra (Toloño).

Hainbat Ordenatako monasterioak egon ziren, baina ez bakoitzeko asko; garaiko Ordena nagusiren bat edo beste falta da, gainera (kartusiar, premontratar eta basilotarrek, adibidez). Bestalde, etxerik gehienak, alde handiarekin, beneditarrenak izan ziren (30). Gogoratzekoa da emakumezkoenen artean Barria-ko zistertarren Monasterioa (1200ekoa), orain urte batzuk Oionera lekualdatu zena (1970).

Monasterio-tradizio honek bidea urratuta eta berorrek zituen mugek behartuta ere (monasterio-sare haren egitura pastoral ahulak, adibidez), XIII. ean Eskeko Ordenen aukera egokitu zen. Hori izango da gure hurrengo historia.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharra: 610-273580